

OHIZKO OSOKO BILKURA

2017.11.28

Tolosako Udaletxean, 2017ko azaroaren 28an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 28 de noviembre de 2017, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia
Maria Lasa Arruabarrena (2. *puntutik aurrera*)

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

Orden del día

1. Ondorengo akta onartzea:
2017ko urriaren 31ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 31 de octubre de 2017.

- | | |
|---|--|
| 2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena onartzea, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko. | 2. Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Tolosa y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la prestación mutua de servicios de información, administración y gestión de electrónica. |
| 3.- Itxitako ekitaldiko fakturaren onarpena. | 3. Aprobación de las facturas del ejercicio cerrado. |
| 4. Hainbat lanpostuen balorazio onartzea | 4. Aprobación de la valoración de varios puestos de trabajo |
| 5. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2017ko urriaren 1etik 31ra (2017/1.752-2017/1.940). | 5. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:
Del 1 al 31 de octubre de 2017 (2017/1.752-2017/1.940). |
| 6. Batzorde informatiboetako kideen aldaketaren berri ematea.. | 6. Dar cuenta de la modificaciones de componentes de las Comisiones Informativas. |
| 7. 2027/2017 (2017/15 kreditu gaikuntza) dekretuaren jakinarazpena. | 7. Dar cuenta del decreto 2027/2017 (crédito adicional 2017/15). |
| 8.- Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna. | 8. Declaración Institucional del 25 de Noviembre, Día Internacional contra La Violencia hacia las mujeres. |
| 9. Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpena. | 9. Declaración institucional con motivo del día internacional del Euskera. |
| 10. Galderak eta eskaerak. | 10. Ruegos y preguntas. |

Lehendakariak batzarreko gaiekin hasi aurretik hitza hartu du: *“Gaur badaukagu nobedade bat Tolosako Pleno Areto honetan: izendatu berria izan den idazkari berria daukagu gurekin, Begoña Garmendia da bera. Beraz, ongi etorria eman nahi nioke. Oso une egokian dator Begoña lege arau eta administrazioan neurri aldaketa handiak datozelako eta etorkizunean ere badatuzelako hainbat. Espero dugu gurekin gustora egotea Begoña, guk hori nahi genuke behintzat. Eta, bide batez, eskertu nahi nioke Kamele Contrerasi, idazkari lanak bete dituelako Begoña etorri bitartean, berak egindako lan guzti hori eskertu nahi nioke.”*

Udal Idazkariak: *“Mila esker, Idazkaritzako ateak irekita egongo dira denontzako.”*

1. Ondorengo akta onartzea:
2017ko urriaren 31ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 31 de octubre de 2017.

Aktaren 3. puntuan, Ordenantza honen aldaketa 2018rako: Ordenantza Orokorra, zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko gaien, Ogasun batzordeburuaren partehartzea oker dago. *“Orokorrean zerga tipoei dagokionez, KPIa %7ko igoera aplikatuko dela”* jaso da eta zuzena da: *“Orokorrean zerga tipoei dagokionez, KPIa %1,7ko*

igoera aplikatuko dela.”

Beraz, aipatutako zuzenketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, 2017ko urriaren 31n akta onartu du.

Maria Lasa Arruabarrena, EHBildu alderdiko zinegotzia bertaratu da.

- | | |
|--|--|
| <p>2. <u>Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoen esparruko zerbitzuak elkarri emateko.</u></p> | <p>2. <u>Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Tolosa y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la prestación mutua de servicios de información, administración y gestión de electrónica.</u></p> |
|--|--|

Idazkariak Ogasun Batzorde Informatiboaren irizpena aurkeztu du:

“AURREKARIAK

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Tolosako Udalak, besteak beste, betebeharrak hauek dituzte: herritarrei kalitateko zerbitzuak esleitzea, baliabide publikoak eraginkortasunez esleitzen eta erabiltzen saiatzea eta administrazio-izapideak sinplifikatzea. Horrez gain, beste administrazio publiko batzuekin batera, helburu partekatutako jarduten dutenean, parte-hartzearen, objektibotasunaren, gardentasunaren eta lankidetzaren printzipioak bete behar dituzte. Kasu zehatz honetan, EAEko Administrazioaren eta Tokiko Administrazioaren arteko elkarlana ezartzen da. Hala izan behar duela agintzen da lege hauetan: Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea (1. eta 4. artikulua) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea (3. eta 140. artikulua). Horretarako, 140.2 artikulua ezartzen duenez, tokiko administrazioarekiko harremanak tokiko araubidearen oinarritzko legeen bitartez arautuko dira, III. tituluan araututa ez dauden gaietan.

Helburu horiek lortzeko badira, ezinbestekoa da urriaren 1eko 40/2015 Legearen 144.1.e artikuluan zehazten den administrazio publikoen arteko lankidetzaz hitzarmenaren alderdi sinatzaileek beren gain hartzen dituzten baldintzak eta konpromisoak ere kontuan hartuta, lege beraren 144.2 artikulua araberak. Zehatz-mehatz, informazioa elkarri trukatzeko sistemak eraiki behar dira, administrazio-prozeduran dokumentuak edo datuak elkarri behar ez izateko, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan – Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea– ezarrita dagoenarekin bat etorrira.

Arrazoi hauetan oinarrituta, Tolosako udalak, Lankidetzaz Hitzarmen bat izenpetu zuen Eusko Jaurlaritzarekin, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoen esparruko zerbitzuak elkarri emateko xedearekin

Hala ere, azken hilabete hauetan izan diren aldaketan eta izenpetu diren hitzarmen berrien ondoren, akordio hauetatik sorturiko hitzarmena berri behar da, behar berriei egokitua izan dadin.

2.- *Helburu hauek lortzeko, beharrezkoa da administrazio elektronikoaren garapenean azkar eta eraginkortasunez aurrera egitea, honako bi lege hauek benetan betetzeko: urriaren 1eko 40/2015 Legea (administrazio publikoen araubide juridikoari eta funtzionamenduari dagokienez) eta urriaren 1eko 39/2015 Legea (14. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio publiko guztiak behartuta daude harreman elektronikoak ezartzera edo ezartzen laguntzera). Hori dela-eta, ezinbestekoa da administrazio guztien eskura jarritako zerbitzu elektroniko batzuk lehenbailehen edukitzea, legez ezarritako betebeharra benetan betetzea lortu ahal dadin.*

Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretuan, otsailaren 21ekoan, ezarritakoaren arabera, datuak eta dokumentuak ez emateko eskubidea baliatzen laguntzeko, Administrazioak gainerako administrazio publikoekin hitzarmenak egitea sustatuko du, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155. artikuluan ezarritakoarekin bat. Erregelamendu horretako 68. artikuluan ezarrita dago hitzarmen horietan zenbait prozedura ezarriko direla, organo lagatzaileek ziurta dezaten ea aipatutako eskubidea erabili den, sarbide-eskaeren xede izan diren datu edo dokumentuei dagokienez.

Era berean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek estatu- eta foru-administrazioekin izenpetutako hitzarmenen bidez formalizatutako zerbitzuetan, eta geroago erabakitzen direnetan parte har dezaten, beharrezkoa da mekanismo egoki bat jartzea, aipatutako toki-erakundeek aipatutako hitzarmenak erraz balia ditzaten, baina, edonola ere, zerbitzu bakoitzean erabiltzaileari ezarritako betebeharrak beti beteko direla bermatzen duen prozedura baten bidez.

3.- *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Estatuko Administrazio Orokorrek 2017ko martxoaren 24an lankidetzaren hitzarmen berri bat sinatu du, administrazio elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko. Lankidetzaren hitzarmen horrek 2017ko urriaren 18ko hitzarmena ordeztu du.*

4.- *Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 141.1.c artikulua ezartzen du gainerako administrazioei eman behar dietela haien eskumenak baliatuz egiten duten jarduerari buruz edo herritarrek arlo bati buruzko informazio osoa eskuratu ahal izateko behar duten informazioa.*

Ondorio horietarako, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 142.a artikulua ezartzen duenaren arabera, honako hauek dira administrazio publikoen elkarlan-betebeharretik eratortzen diren betebeharrak: eskubidea jaso duen erakunde publikoak edo entitateak dituen informazio, datu, agiri edo frogabideak ematea, baldin eta administrazio eskatzaileak halakoak eduki behar baditu bere eskumenak baliatzeko; administrazio-informazioko sistema integratuak sortu eta mantentzea, lurralde nazional osoan administrazio-jardueraren esparru batzuei eta besteei buruzko datu eguneratu, oso eta iraunkorrek edukitzeko; laguntza-betebeharra beste administrazio batzuek beren eskumenak hobeto baliatzeko egindako eskariei arreta egiteko, bereziki administrazio horien jarduera beren lurralde-eremutik kanpo hedatzen bada.

Sinatzaileek datu jakin batzuk behar izaten dituzte beren egitekoak burutzeko eta esleituta dauzkaten eskumenak erabiltzeko. Beraz, administrazio publikoen arteko harremanetan

elkarri laguntzeak nagusi izan behar duela kontuan hartuta eta beraien jardunean eta harremanetan baliabide publikoak eraginkortasunez esleitzeko eta erabiltzeko printzipioa eta herritarrei zerbitzu eraginkorra eman beharraren printzipioa aplikatuta, alderdiek uste dute beren arteko datu-trukea arautu behar dutela. Trukean baliabide informatikoak edo telematikoak erabiliko dira, eta, administrazio publikoek dauzkaten datuak direnez, herritarrei dagozkien bermeak eta eskubideak errespetatu beharko dira.

5.- *Horregatik, bi alderdiek uste dute zerbitzuak linean ematea sustatu behar dela, zerbitzuen, izapideen, prozeduren eta informazioaren elkarrengarritasuna handitzeko.*

Horren harira, sinatzaileek, beren eskumenen eremuetan, beharrezkotzat jo dute Administrazioaren jabetzako sistemen eta aplikazioen arteko koordinazioa sustatzea. Sistemen eta aplikazioen berrerabilera ezin handiagoa izango da, administrazioen eta interes publikoaren premiak, hobekuntzak edo eguneratzeak gauzatzeko helburua ezarrita. Horretarako, sistemak eta aplikazioak alderdien eskura jarriko dira.

Erabiliko den elkarrengarritasunerako sisteman, paperezko ziurtapenen edo ziurtagirien orde, datuak trukatzeko plataformak edo horretarako prestatu diren beste sistema elektroniko batzuk baliatuko dira. Hori horrela, administrazio publikoen sareak elkarrekin konektatuta egongo dira, bertako informatika-mekanismoak bateragarriak izango dira, eta administrazio publikoen sareetako transmisio telematika gauzatuko da. Horrelako komunikazio-sare batean informazio-sistemak elkarrekin konektatuta egongo dira, administrazioen arteko informazioa eta zerbitzuak trukatzeko aukera egongo da, eta interesdunek datuak erabili ahal izango dituzte (datuok erabilgarri badaude), beren eskumenen arloko izapideak, prozedurak eta jarduketak gauzatzeko. Horrek guztiak bat etorri behar du bere araudi arautzaileekin eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan – Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legea da, hain zuzen ere– eta lege hori garatzeko araudietan ezarritakoarekin; betiere segurtasuna, osotasuna eta erabilgarritasuna ezin hobeto bermatuta. Alde horretatik, kontuan hartu behar da urriaren 1eko 40/2015 Legearen 158.1 artikuluan ezarritakoa; zehatz-mehatz, administrazio publikoek aplikazioen aurkibide eguneratuak edukiko dituztela, libreki berrerabiltzeko, Elkarrengarritasunerako Eskema Nacionalean xedatuta dagoenaren arabera. Aurkibide horiek elkarrengarriak izan beharko dute, Estatuaren Administrazio Orokorren aurkibide orokorrek bateragarritasun informatikoa eta konexioa bermatzeko.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarrita dago herritarrek eskubidea daukatela edozein administrazio eginiko dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, araudi arautzaile aplikagarriak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak edo interesdunak edozein administraziori jada eman dizkion datuak edo dokumentuak ez emateko.

6.- *Alderdiek elkarrengarritasunerako sistema ezarri nahi dute; eta sistema horren bidez elkarri trukatuak dioten informazioa, sistemako euskarriak eta aplikazioak seguru, zainduta eta ondo araututa egongo dira. Administrazio publikoek horiek guztiak kontuan hartu beharko dituzte, erabaki teknologikoak hartzen dituztenean.*

Helburu horiek eraginkortasun handiagoz lortzeko, eta administrazio publikoen arteko lankidetzaren eta koordinazio-printzipioei jarraituta, erabaki hau bereziki baliagarria da bi administrazio sinatzaileentzat.

IDAZKARIAREN TXOSTENA

Udal Idazkariak, proposaturiko hitzarmenaren aldeko txostena aurkeztu du, ondoko testuaren arabera:

“Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55. artikulua, Estatu eta Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta Toki Entitateetako administrazioen arteko koordinazioa, eraginkortasuna eta elkarrekiko lankidetzaren arautzen ditu, dituzten xedeak ahalik eta era onenean bete ditzaten.

Aipatu Legearen 57. artikulua, besteak beste, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetzaren ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa arautzen du, udal eskumeneko zerbitzuak emateko garaian. Lankidetzaren hori, dagokion administrazio-hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeak arautzen dituen apirilaren 6ko 7/2016 Legearen 100. artikulua ondoko hau xedatzen du: 1.– Toki-erakundeek lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izango dituzte bai beraien artean bai gainerako administrazioekin, kudeaketa publiko efizienteagoa lortzeko eta administrazio-bikoiztasunak ekidin edo ezabatzeko. 2.– Lankidetzaren hitzarmenaren helburua izango da: sektore edo biztanleria jakin bati bideratutako sustapen-politikak koordinatzea; aldeetako baten eskumeneko obra edo zerbitzuak burutzea; lege honetan zehaztutako eskumenak garatzeko –propioak, transferituak, eskuordetuak edo bestelakoak– behar diren egoitza, lokalak edo eraikinak partekatzea; ondareko ondasunak erabiltzeko lagatzea eta lagapenak onartzea; prestazio-jarduerak garatzea; hala dagokionean, obra, ondasun eta zerbitzuen administrazio-kontratazioa arrazionalizatu eta zentralizatzeko mekanismoak jartzea; administrazio-zerbitzuak multzokatzea, eta, finean, aurrekoen antzeko beste edozein helburu lortzeko behar diren neurriak hartzea.

3.– Beharrezkoa denean, hitzarmenak aurreikusitako ahal izango du, kasuan kasuko zerbitzuak eta bitarteko material eta ekonomikoak eskualdatzeaz gain, zerbitzu horietara atxikitako langileak ere aldatzea; baina horrek ez dakar berekin inolaz ere ez dagokion administrazio publiko bateko funtzio publikoan sartzea.

*Halaber, 2016ko urriaren 2an indarrean sartu zen Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko tituluaren VI. Kapituluak, Lankidetzaren hitzarmenak arautzen ditu, ondoko definizioarekin: **“1. Son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común.***

No tienen la consideración de convenios, los Protocolos Generales de Actuación o instrumentos similares que comporten meras declaraciones de intención de contenido general o que expresen la voluntad de las Administraciones y partes suscriptoras para actuar con un objetivo común, siempre que no supongan la formalización de compromisos jurídicos concretos y exigibles.

Los convenios no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en la legislación de contratos del sector público.”

Hitzarmenaren baliozkotasun eta eraginkortasunari dagokionean, 40/2015 Legearen 48. artikulua, bete beharreko baldintzak xedatzen ditu, horien artean, kasurako aipatzekoak:

1. *Hitzarmenak izenpetzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu, zerbitzu publikoen eta baliabideen baterako erabilera erraztu, onura publikoko jarduerak burutzeko laguntza eman eta aurrekontuaren egonkortasun eta finantza jasangarritasunaren inguruko legedia bete beharko ditu (48.3 artikulua)*

2. *Hitzarmenak aldean adostasuna azalduz perfektionatzen direla (48.8 artikulua)*

Hitzarmenek zehaztu beharreko gutxieneko materiak 40/2015 Legearen 49. artikulua xedatzen ditu, ondokoak:

a) Sujetos que suscriben el convenio y la capacidad jurídica con que actúa cada una de las partes.

b) La competencia en la que se fundamenta la actuación de la Administración Pública, de los organismos públicos y las entidades de derecho público vinculados o dependientes de ella o de las Universidades públicas.

c) Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto para su cumplimiento, indicando, en su caso, la titularidad de los resultados obtenidos.

d) Obligaciones y compromisos económicos asumidos por cada una de las partes, si los hubiera, indicando su distribución temporal por anualidades y su imputación concreta al presupuesto correspondiente de acuerdo con lo previsto en la legislación presupuestaria.

e) Consecuencias aplicables en caso de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por cada una de las partes y, en su caso, los criterios para determinar la posible indemnización por el incumplimiento.

f) Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes. Este mecanismo resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse respecto de los convenios.

g) El régimen de modificación del convenio. A falta de regulación expresa la modificación del contenido del convenio requerirá acuerdo unánime de los firmantes.

h) Plazo de vigencia del convenio teniendo en cuenta las siguientes reglas:

1.º Los convenios deberán tener una duración determinada, que no podrá ser superior a cuatro años, salvo que normativamente se prevea un plazo superior.

2.º En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

Bestalde, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 86. artikuluan xedatutakoaren arabera, herri administrazioek ahalmena izango dute pertsona fisiko edo juridiko, publiko zein pribatuekin hitzarmenak, kontratuak edo bestelako itunak formalizatzeko, honako baldintza hauek kontuan hartuta: indarrean dagoen araubide juridikoaren aurkakoak ez izatea, dagokion gaiaren gain transakzio-debekurik ez izatea, eta dagokion akordioa interes publikoan oinarriturik egotea.

Jardunbideari dagokionez, Lankidetza hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaleko gardentasun atarian Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikulua b) atalean xedaturikoarekin bat, eta udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

ESKUMENA.- *Lankidetza hitzarmen hau onartzeko eskumena Udalbatza Plenoarena da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua xedaturikoaren arabera."*

Beraz, hau dena kontuan hartuta, ondorengoa irizpidetu du Ogasuneko Batzorde Informatiboak:

IRIZPENA

LEHENA.- Informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko xedea dituen Tolosako Udala eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko lankidetzaz-hitzarmena onartzea, ondoko klausula eta eranskinen arabera:

LEHENENGOA.- Xedea eta helburua.

Hitzarmen honen xedea da baldintza eta irizpide orokorrak finkatzea: alde batetik, sinatzaileek ematen dituzten zerbitzu elektronikoaren aprobetxamendu komuna egin dezaten; eta, bestetik, informazioa truka dezaten beraien artean.

Horren ondorioa da zerbitzu jakin batzuk erabilgarri egotea, eta alderdietako bakoitzak emandako zerbitzu-eraketa sarbidea eta haien erabilera komuna erraztea. Zerbitzu horiek hitzarmen honetan eta hitzarmeneko hiru eranskinetan adierazi bezala emango dira.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155.2 artikuluan ezarrita dagoen bezala, honako datu hauek baizik ez dira eskainiko aurreko paragrafoan aipatutako eran: gainerako administrazioek beren eskumeneko prozedurak eta jarduerak dagozkien arauen arabera izapidetzeko eta ebazteko interesdunei eskatzen dizkietenak.

Hau da hitzarmenaren xede nagusia: edozein administrazio egin dituen dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, araudi arautzaile aplikagarriek eskatzen ez dituzten datuak edo dokumentuak edo lehendik beste administrazio bati eman zaizkionak ez emateko eskubidea egikaritzea, zeinaren onarpen presuntzioa izango den, prozeduran kontraktasun espresua adierazi edo aplikatzekoa den lege bereziak ez bada agintzen adostasun espresua adierazi beharra dagoela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako baldintzetan.

Hitzarmen honek beste xede bat ere du: atxikitze-mekanismoa ezartzea, III. eranskina betez, hitzarmen hau sinatu duen **Tolosako** Udalak atxikitzeko administrazio elektronikoaren esparruko oinarriko irtenbideak elkarri emateko Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatu den lankidetzaz-hitzarmenari, aplikagarriak diren alderdi guztietan. Aipatutako lankidetzaz-hitzarmen horrek Lehendakari Ministroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean administrazio elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko 2010eko urriaren 18an sinatu zuten lankidetzaz-hitzarmena ordezkatu du.

Amaitzeko, hitzarmenaren xede ere bada hitzarmenak indarra duen bitartean sortzen diren administrazio elektronikoaren funtzionalitate eta zerbitzu berriak, haren xedearekin erlazioa dutenak, baliatzea alderdi sinatzaileek, etorkizunean horretara eranskin berriak gehitzen dituen prozeduraren bidez; nolana ere, prozedura horrek bermatuko du bai haren edukari bai zerbitzu bakoitzean erabiltzailearentzat ezarritako betebeharren betetze-mailari buruzko erabakiak egon badaudela.

Hitzarmena sinatzeko helburuak honako hauek dira: kudeaketa publikoa eraginkorragoa izatea, baliabide eta zerbitzu publikoak batera eta errazago erabiltzea, erabilera publikoko jarduerak egiten laguntzea, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari

buruzko legeak betetzen laguntzea eta administrazioko bikoiztasunak ezabatzea. Horretan, honako artikulua hauek bete beharko dira: urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.3 artikulua; Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen lehenengo artikuluan jasotako idazkeraren arabera; eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua.

BIGARRENA.- Aplikazio-eremua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Tolosako Udalak hitzarmen honetako bi eranskinetan zerrendatzen diren eta Eusko Jaurlaritzari dagozkion zerbitzuen funtzionalitateak baliatu ahal izango dituzte. Eranskinak honako hauek dira:

1. **I. eranskina.** Datuak transmititzea.
2. **II. eranskina.** Jakinarazpenen eta komunikazio elektronikoaren zerbitzua.

Halaber, 2017ko martxoaren 24an sinatutako Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko lankidetzaren hitzarmen berrian sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarriko irtenbide teknologikoak baliatu ahal dituzte, hamabigarren klausulan eta III. eranskinean xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Informazio-trukearen arduradunak.

1- Administrazio lagatzaile bakoitzak erabakiko du zer protokolo eta baldintza bete behar diren datuak trukatzeko eskaintzen diren zerbitzuetan sarbidea izateko. Datuak bitartekotza bidez trukatzeko eskabideak koordinatu, izapidetu eta kontuan izateko organo arduraduna hauxe da:

- **Tolosako** Udalean: administrazio elektronikoaren eskumena duen organoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan: administrazio elektronikoaren eskumena duen zuzendaritza.

2- Datuen lagapena hartzeko duen administrazio bakoitzak datuetara sarbidea izateko baldintzak beteko ditu, eta baimendutako administrazio-izapide eta -prozeduren esparruan lagatzaileak emandako informazioa eskuratu nahi duten pertsonen eta organoen sarbidea kudeatuko du. Hau da datuak bitartekotza bidez trukatzeko eskabideak koordinatu, izapidetu eta kontuan izateko organo arduraduna:

- **Tolosako** Udalean: administrazio elektronikoaren eskumena duen organoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan: administrazio elektronikoaren eskumena duen zuzendaritza.

LAUGARRENA.- Baldintza teknikoak eta funtzionalak.

Datuen bitartekotza-protokoloen Elkarrengarritasun Arau Teknikoan jasotako baldintzak (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2012ko uztailaren 26koa) hitzarmen hau aplikatuz egiten den datuen truke bitartekotuari aplikatuko zaizkio.

BOSGARRENA.- Hitzarmenaren jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko batzordea.

Jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko batzordea eratuko da, hitzarmen honetan eta eranskinetan alderdi sinatzaileek hartu dituzten konpromisoen kudeaketa, jarraipena eta

kontrola egiteko. Honako kide hauek izango ditu: **Tolosako** Udalak izendatutako bi kide eta Eusko Jaurlaritzak izendatutako beste bi.

Jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko batzordeak ohiko bilkura bat izango du urtean. Horrez gain, aparteko bilkura egingo du alderdietako batek eskatzen duen bakoitzean.

Jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko batzordeak ebatziko ditu hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sortutako arazoak, bai eta alderdi sinatzaileei hitzarmenaren edozein aldaketa proposatzea ere.

Horretan, kontuan hartu beharko da urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 c letran ezarritakoa: sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak betetzen ez baditu, hitzarmena azkendu ahal izango da.

Gainera, Jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko batzordeak aldaketa teknikoak ezarri ahalko ditu, betiere hitzarmenaren funtsa aldatzen ez badute.

SEIGARRENA.- Norberak egin behar dituen jarduketak eta araubide ekonomikoa.

Kooperazio-hitzarmen honek ez du sortzen sinatzaileen arteko kontraprestazio ekonomikorik. Hala ere, alderdiek inbertsioak egin beharko dituzte beren instalazioetan, hitzarmen hau sinatutakoan, beren gain hartu dituzten betebeharrak eta, zehazki, alderdi sinatzaile bakoitzak egin behar dituenak betetzeko, betiere egingarriak badira.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahalko dute hura luzatzea, beste lau urteko aldi baterako gehienez, edo hura azkentzea. Hala eta guztiz ere, sinatzaile guztiak ados jarrita, hitzarmena azkendu ahalko da.

Hitzarmenaren formalizazioa eta haren azkentzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Gipuzkoako lurralde historikoko aldzikari ofizialean eta **Tolosako** udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmena aldatzea.

Alderdiek noiznahi proposatu ahal izango dute hitzarmena berrikustea, egokitzeak jotzen dituzten aldaketak egiteko. Hitzarmenaren edukia aldatu aurretik, alderdi sinatzaileek aho batez onartu beharko dute.

Klausulak berrikusten badira, alderdiek sinatutako eranskin batean jaso beharko dira, eta eranskina hitzarmenari erantsiko zaio.

Halaber, eranskin prozedura horren bidez, alderdiek adostu ahalko dute hitzarmenak indarra duen bitartean sortzen diren eta haren xedearekin erlazioa duten administrazio elektronikoaren funtzionalitate eta zerbitzu berriei buruz lehenengo klausulan ezarritako eranskinak gehitzea, baina horrek ez du ekarriko hitzarmen honen klausulak berrikustea.

HAMARGARRENA.- Gatazkak konpontzea.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek konpromisoa hartu dute hura betetzean sortzen diren gorabeherak elkarrekin ados jarrita konpontzeko, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.f artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

Hitzarmenaren garapenean eta betearazpenean alderdien artean auziren bat sortzen bada, eta bosgarren klausulan aipatutako jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko batzordeak konpondu ezin badu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsioa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorrira.

HAMAIKAGARRENA.- Komunikazioa.

Alderdiek hitzarmenaren beste sinatzailea ere aipatuko dute, bakarka zein batera hitzarmenaren gaiaz egiten dituzten komunikazio-egintza guztietan.

HAMABIGARRENA.- Tolosako Udala atxikitzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Estatuaren Administrazio Orokorren artean 2017ko martxoaren 24an sinatutako hitzarmenari.

Klausula honen bidez, atxikitze-mekanismoa ezartzen da, hitzarmen hau sinatu duen toki-erakundea atxikitze administrazio elektronikoa esparruko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko Estatuko Administrazio Orokorrekin 2017ko martxoaren 24an sinatu den lankidetzeta-hitzarmenari, aplikagarriak diren alderdi guztietan, eta hitzarmen horren bigarren klausulan ezarritakoari jarraituta. Horretarako, toki-erakundearen izenean diharduen ordezkariak atxikitze-eskaeraren protokoloa sinatu beharko du. Protokolo horren bidez konpromisoa hartuko du soluzio teknologikoak eskuratzeko eta erabiltzeko betebeharrak, hitzarmenean zehaztuta, betetzeko. Horrez gain, Toki-erakundeak bere gain hartuko du Euskal Autonomia Erkidegoko erabiltzaileei ezarritako betebeharrak ere, bere eskumenen arloan, betetzea. Hori guztia III. eranskinaren arabera egin behar da. Hitzarmen hau Estatuko Administrazio Orokorri jakinaraziko zaio.

BIGARRENA.- Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, aipatu hitzarmena eta eranskinak, eta berau egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpe ditzala.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta gardentasunaren atarian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu J.ri jakinaraztea.

Hori guztia ikusirik, 2017ko azaroaren 21ean egindako Ogasun batzordeak aho batez onartu du lankidetzeta hitzarmen hau, Osoko Bilkuraren aurrean aurkeztua izan dadin, berari dagokiolako onartzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua xedaturikoaren arabera. Honela bozkatu dute:

Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
Lore Agirre (EH Bildu): Aldeko botoa
Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Aldeko botoa

Tolosa, 2017ko azaroaren 22a”

Udaltzatzako bozketaren emaitza honakoa izan da :

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegui Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Maria Lasa Arruabarrena, Pedro Manuel Etxabe Zabala, Cristian Fernandez Susin

Beraz, Udaltzatzak, aho batez, **onartu du** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.

3.-Itxitako ekitaldiko fakturaren onarpena. **3. Aprobación de las facturas del ejercicio cerrado.**

Ogasun batzorde informatiboaren 2017ko azaroaren 22ko irizpena:

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten den faktura hau 2017ko ekitaldian jaso da, baina 2016ko ekitaldiko faktura data du.

HARRERA DATA	FTRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FTRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2017-09-20	2016-06-22	0300.226.04.92000	Entrena.Abogados, S.C.P	67/2016	Honorarios defesa en diligencias previas nº3532/2007, Juzgado Instrucción 21 de Barcelona	2.650,00 €

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2016ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2017ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Hori guztia ikusirik, batzordeak aho batez diktaminatu du itxitako ekitaldiko faktura hau

Osoko Bilkurara bidaltzea, onar dezan. Ondorengo botoak izan dira:

Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
Lore Agirre (EH Bildu): Aldeko botoa
Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Aldeko botoa

Tolosa, 2017ko azaroaren 22a

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa izanda :

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegui Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Maria Lasa Arruabarrena, Pedro Manuel Etxabe Zabala, Cristian Fernandez Susin

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **onartu du** itxitako ekitaldiko faktura.

4. **Hainbat lanpostuen balorazio onartzea.** 4. **Aprobación de la valoración de varios puestos de trabajo**

Idazkariak honako irizpena aurkeztu du

GIZA BALIABIDE ETA UDAL ANTOLAKUNTZA BATZORDEA
2017ko azaroaren 21eko diktamena

2.- Hainbat lanpostuen balorazio onartzea

AURREKARIAK

Tolosako udalak hainbat lanpostuen balorazioa egiteko LKS enpresari lanak esleitu zizkion. Prozesu honen arrazoia bi oinarritan finkatu da: batetik, baloratu gabe zeuden lanpostuen balorazioa egitea (Idazkaria, kontuhartzailea, Hirigintzako burua, informatikaria, Gazte teknikaria, berdintasun teknikaria eta Ofizial orde) eta bestetik, baloratuak egon arren, beren funtzioetan aldaketa nabarmena jasan duten lanpostuak berrikustea (eskoletako atezaina eta ikuskatzaile-delineatzailea).

Proposamena azaldu aurretik, adierazi behar da lanpostuen balorazioa egiterakoan, gainontzeko udal lanpostuak baloratzeko 2005ean erabilitako eskuliburua erabili dela oinarri gisa, homogeneizazio-irizpideak aplikatuz. Eskuliburua, EUFALEBA lan hitzarmena indarrean zegoenean erredaktatu zen, eta ez dago egokituta UDALHITZ hitzarmenaren xedapenetara. Horregatik, azaltzen diren hainbat kontzeptu (ordainsarien osagarriak, etab.) indarrean dagoen lan hitzarmenarekin, zera, UDALHITZ hitzarmenarekin, egokitu behar dira, udaleko langile guztien kasuan.

Jardunbide honetan, lanpostua betetzen ari diren langileekin LKSk teknikariek elkarrizketa bat burutu zuten martxoko hilabetearen zehar non lanpostuen deskribapenak eta eginkizunak berbegiratu zituzten eta honen ondorioz, LKSk balorazio proposamen bat egin zuen. Balorazio proposamen hau joan den urriaren 5ean Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordean aurkeztu zen batzordekideei. Honen ondoren, interesatuei 10 lanegunetako epea eman zaie alegazioak aurkez ditzaten.

Behin epe hau igarota, sei alegazio aurkeztu dira interesatuen aldetik: berdintasun teknikaria, ofizial ordeak, informatikaria, eskoletako atezaina eta ikuskatzaile-delineatzailea. Alegazio hauei LKSk dagokion erantzuna eman dio, txostena honekin batera doan eranskinean.

GAIAREN AZTERKETA

Izapide hauek garatu ondoren, ondoan adierazten diren irizpidean hartu dira kontutan lanpostuen balorazio-aktak jasotzerakoan:

- Gobernu taldeak eta alderdi sindikalak lortutako akordioaren baitan, udaltzaingoko agenteak "Asimilación nivel 2" deituriko osagarria deituriko ere jasoko dute (53,01 euro gordin hilean), bost zikloko turnoetan lan egiten duten aldietan. Halaber, dagozkion plusak eta ez ohizko orduak ere "Asimilación nivel 2" kontzeptuaren arabera jasoko dituzte.

- Ofizial ordeak % 20eko dedikazio ezarriko zaio bere lanpostuaren balorazioan, bere lanaldiak honela eskatzen duelako. Honela, kontuan hartuta Ofizialak % 12ko dedikazioa duela, beharrezkoa eta zentzuzkoa dirudi zerbitzuburuaren dedikazioa behinbat maila berean jartzea, izan ere bere dedikazioa balorazio eskuliburuaren 3,5 puntuan barnebiltzen baita.

- Dedikazioa onartzen zaien lanpostuen kasuan, lehen aipaturiko homegeneizazio irizpideak kontutan harturik, UDALHITZ lan hitzarmenak xedaturiko urteko ordu-kopurua aplikagarria izango da, zera, 1.685 ordukoa. Beraz, lanpostu hauen urteko lansaioa 1.685 ordukoa izango da.

- Horretaz gain, Tolosako udal lanpostuen balorazio-aktek ez dute islatzen prestutasunaren (ohiko lansaiotik kanpo egindako orduak, urtekoaren barruan) eta dedikazioaren (urteko lansaiotik gain egindako orduak) arteko berezitasunak, eta bi kontzeptu hauek dedikazioari atxikitzen zaizkio. Arrazoi hauengatik, eta lehen aipaturiko homegeneizazio-irizpideak direla medio, une honetan balorazioak onartuko dira eginda dauden terminoetan, baino aipaturiko bi kontzeptu hauek aztertu eta antolatuko dira errealitatea eta zerbitzuen beharren arabera, eragindako lanpostu guztietan, gehienez sei hilabeteko epean.

- Ikusirik balorazio-jardunbidea noiz hasi zen, eta homegeneotasun irizpidea kontutan harturik, ebazpen hauek 2017ko urtarrilaren 1eko eragina izatea proposatzen da.

- Azkenik, baloratu diren lanpostuen eta gainontzeko udaleko lanpostuen bateraezintasuneko araubideari dagokionez -Udaltzaingoak kenduta, berariazko araubidea duelako-, Herri Administrazioetako Pertsonalaren Bateraezintasunak arautzen dituen abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 19. xedapena izango da aplikagarri. Horretaz gain, estatuko gaitasuna duten funtzionarien kasuan, haien araubidea arautzen duen 1174/1987 Dekretuaren xedapenak izango dira aplikagarriak. Beraz bateragarriak izango dira Tolosako udalak partaidetza duen bestelako toki-entitateetako Idazkaritza eta Kontuhartzaitza funtzioekin, eta beste udaletan aipatu lanpostuak aldi baterako hornitzearekin, lan-pilaketako erregimenean, azken honek Tolosako udalaren aurretiazko baimena beharko duelarik.

Balorazio aldaketa hauek, udaleko Lanpostuen zerrendan bere islada izan behar du, hau da, lanpostu bakoitzaren ezaugarriak osatu eta onartu beharko dira. Txosten honekin batera doa aipatu lanpostuen eguneratzeak (ikus eranskina).

Bukatzeko adierazi behar da Pertsonal Juntako ordezkariak bai urriaren 5eko eta bai azaroaren 22ko Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordean parte hartu zuten, negoziazio izapideak burutu direlarik.

Lege xedapenei dagokionez, aipatutakoez gain honakoak hartu behar dira kontutan:

- Batetik, bai 2016 bai 2017 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak esaten dute bakarrik lanpostu baten balorazioa egin daitekeela kasu zehatz batzuetan; zehazki, aipatu legeak esaten du langileen ordainsarrietan egokitzapenak egin ahal izango direla, beti ere izaera singular eta ez-ohizko baten barnean, ezinbestekoak suertatzen badira lanpostuaren edukiarengatik, programa bati asignatutako kideak aldatzen badira edota ezarritako helburuen betetze mailaren arabera.

- Bestetik, akordioa onartzeko eskuduntza udalbatzak du, guztia apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22 i) artikuluan xedatutakoaren baitan.

Hau guztia ikusirik, Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak batzordeak, Iñigo Alonso, Nerea Letamendia, Joseba Ormazabal eta Cristian Fernandezek aldeko botuarekin eta Iñaki Irazabalbeitia eta Lore Agirrereren abstentzioarekin, hauxe da eman duen

DIKTAMENA

Lehenik.- Interesatuak balorazio aktei aurkeztutako alegazioak bertan behera uztea.

Bigarrenik.- Xedapen zatian aipatu diren lanpostuen balorazio aktak onartzea, hau da, Idazkaria, kontuhartzailea, Hirigintzako burua, informatikaria, gazte teknikaria, berdintasun teknikaria, Ofizial ordea, eskoletako atezaina eta inspektore-delineatzailearena hain zuzen ere, txosten honen eranskin gisa doazenak.

Hirugarrenik.- Udaltzaingoko agenteen kasuan, hiru txandatan lan egiten dutenean "Asimilación nivel 2" delako kontzeptua onartzea, irizpide honen aurrekarietan jasotakoaren arabera. Halaber, Ofizial lanpostuari, % 20eko dedikazioa jartzea bere balorazioan.

Laugarrenik.- Erabaki hauek 2017ko urtarrilaren batetik izango dira aplikagarriak.

Bosgarrenik.- Udaleko lanpostua zerrenda onartu eta aldatzea, balorazio honekin aipatu lanpostuetan egindako aldaketak isladatuaz.

Seigarrenik.- Akordio hau intersaatei, kontuhartzailatza departamentuari eta langileen ordezkariari jakinaraztea. Ildo beretik, akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaleko web orrian eta udaleko iragarki taulan argitaratzea."

Bozketaren emaitza honakoa izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegui Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Egulaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia eta Cristian Fernandez Susin.

Abstentzioak: , Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Maria Lasa Arruabarrena, Pedro Manuel Etxabe Zabala.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, **onartu du** hainbat lanpostuen balorazioa.

Partehartzeak:

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *“Gaur onartuko diren lanpostuen balorazioarekin bukaera ematen zaio 2003an hasi eta 2005ean bukatu zen udal antolaketan lanpostu baloraketei. Orduan balorazeko geratu ziren hainbat lanpostu eta tartean sortu diren postu berriak onartuko dira gaurkoan. Kasu honetan udal gobernuaren aldeko botoekin onartuko dira , izan ere, EHBilduko kideok gai honi dagokionean, batzordean bezala, abstenitu egingo gara. Gure ustez, udalak antolaketa osoaren berrikusketa bat egin beharko lukeelako. Azkenean, 2003an hasiera eman zitzaien prozesu hortatik urte asko pasa dira eta, nolabait ere, ikusten dugulako lanpostu guztiek beharko luketeela horrelako berrikusketa. Horretaz gain, aztertuak izan diren lanpostuak betetzen dituztenen alegazioak idatziz jaso genituenean eskatu genuen alegazioak ahoz entzutea, guk erabakia hartzeko beharrezkoa ikusten genuelako afektatu horien ahotik entzutea beraien arrazoiak, lurramendi egoitzako lanpostuen baloraketa egin zenean horrela egin zelako. Alegazioak ahoz entzun eta horrela informazio gehiago eduki genezan. Ezezkoa esan zitzaigun.. Ondorioz, gu guzti hau honengatik abstenitu egingo gara.”*

... Alkatea: *“Adierazi den bezala urte honen hasieran erabaki genuen baloratu gabe zeuden udalako lanpostuen eta funtzioen aldaketa nabarmen izan zituen beste bi lanpostuen balorazioa egin behar zela. LKS enpresak egin du. Prozedurak agintzen duen bezala, balorazio jaso ondoren, egon da alegazio epe bat, beraien iritzia emateko eta gero alegazio horiek erantzun dira. Lanpostuen balorazioa LKSk egin du, gai oso teknikoa da bakoitzan kategori eta mailaren arabera balorazioa egiten delako. Prozedurak agintzen du nola egin behar den, hitza langileari eman eta nola eta baita langileari erantzuna nola eman ere. Ahoz alegazioa emateko aukera izan zitekeen baina horrek ez luke ezer aldatuko balorazioa teknikoa delako eta horrela izan behar du, gainera. Txarra izango litzateke politikoki aldatzea balorazio hori. Guk prozedura egokia ikusi dugu. Udaltzaingoraren gaia, osagarritasunaren gaia, aspaldi erantzuteko zegoen gai ere bazegoen eta gaurko diktamen hau onartzearekin erantzuna ematen zaio.”*

5. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2017ko urriaren 1etik 31ra
(2017/1.752-2017/1.940).

5. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:
Del 1 al 31 de octubre de 2017
(2017/1.752-2017/1.940).

Alkatezak 2017ko urriaren 1etik 31ra bitartean (2017/1.752-2017/1940) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

6. Batzorde informatiboetako kideen aldaketaren berri ematea.

6. Dar cuenta de la modificación de componentes de las Comisiones Informativas.

Partehartzeak:

... Alkatea: *Batzordeko kideen ordezkioak izendatzearen arrazoi nagusia da, ez da ohizkoa izaten, baina gerta liteke batzorde batzuk egiteko garaia quouruma izateko zailtasuna izatea eta erreglamentuak horrelako aukera ematen duenez iruditu zaigu egokia ordezkari horiek izendatzea. Ordezkariak izendatzeaz gain, badago aldaketa nabarmena aipatu nahi nukeena eta da Berdintasuneko batzordeburua, Maite Ruiz de Eguilaz izan da orain arte eta bere lanak daukan ordutegiagatik ezinezkoa zaio batzordearen gidaritza ematea. Beraz, Maitek utzi egingo luke Berdintasuneko saileko burua izateari eta ni neroni izango naiz. Eskertu nahi diot Maiteri orain arte egindako lana. Egia esan goizeko 8etan Maite hemen zegoen, baita ere iluntzeko 8etatik aurrera. Beraz, benetan, eskerrak Maite egin duzun lan guztiagatik. Ni saiatuko naiz zuk hasi duzun lan hori legealdi bukatu arte behintzat jarraitzen."*

... Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga (EAJ-PNV): *"Mila esker. Arratsalde on, guztioi. Adierazi den eran, legealdia hasieratik bete dudan berdintasuneko batzorde buru izateari utziko diot. Arrazoa honakoa da: hemendik aurrera nire lanpostua dela eta, ezin diot eskaini orain arte emandako denbora eta dedikazio bera. Berdintasuna sailak indartsu eta proiektu berritzaileak gauzatzen jarrai dezan lana eskatzen du, denbora eta aurrerantzean nik ezin diot nahi adina eskaini. Hori horrela, bi urte eta erdiko ibilbide hauetan bidelagun izan ditudan teknikariei, batzordekideei eta era batera edo bestera gurekin jardun dutenen eragile guztiei nire eskerrik beroena helarazi nahi diet. Beraiengandik daramatzat bizipenak eta ikasitako guztia. Esku honenetan uzten dut saila eta edorzertarako hemen izango naiz. Mila esker."*

Batzorde informatiboetako kideen aldaketearen hauen berri eman zaie Udalbatzarkideei:

Tolosako Udaleko Idazkariari

Jokin Azkue Arrastoak, EAJ/PNV Udal Talde politikoaren bozeramaile gisa, jakinarazten ditu Batzorde Informatiboetako kide aldaketak:

Gaur Egun

Aldaketa

BERDINTASUNA:

Lehendakaria Maite Ruiz de Eguilaz
Bokalak Begoña Tolosa
Joseba Ormazabal

Olatz Peon
Begoña Tolosa
Joseba Ormazabal

HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA

Lehendakaria Jokin Azkue
Bokalak Nuria Carbonell
Begoña Tolosa

Jokin Azkue
Nuria Carbonell
Maite Ruiz de Eguilaz

GIZARTE POLITIKA:

Lehendakari: Olatz Peon
Bokalak Joseba ormazabal
Nerea letamendia

Olatz Peon
Maite Ruiz de Eguilaz
Nerea Letamendia

EKONOMIA SUSTAPENA:

Lehendakaria Olatz Peon
Bokalak Jokin Azkue
Iñigo Alonso

Olatz Peon
Begoña Tolosa
Iñigo Alonso

Tolosako Udaleko Idazkariari

Jokin Azkue Arrastoak, EAJ/PNV Udal Talde Politikoaren bozeramaile gisa, jakinarazten ditu Batzorde Informatiboen Ordezkoak:

Titularrak

Ordezkoak

BERDINTASUNA:

*Begoña Tolosa
Joseba Ormazabal*

*Jokin Azkue
Nerea letamendia*

HIRIGINTZA:

*Jokin Azkue
Patxi Amantegi*

*Nerea Letamendia
Nuria Carbonell*

INGURUMENA, OBRAK:

*Nuria Carbonell
Jokin Azkue*

*Joseba Ormazabal
Nerea Letamendia*

UDALTZAINGOA:

*Iñigo Alonso
Maite Ruiz de Eguilaz*

*Joseba Ormazabal
Patxi Amantegi*

EKONOMIA SUSTAPENA:

*Iñigo Alonso
Begoña Tolosa*

*Joseba Ormazabal
Jokin Azkue*

MERKATARITZA:

*Joseba Ormazabal
Patxi Amantegi*

*Begoña Tolosa
Nuria Carbonell*

HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA

*Nuria Carbonell
Maite Ruiz de Eguilaz*

*Begoña Tolosa
Joseba Ormazabal*

GIZARTE POLITIKA:

*Maite Ruiz de Eguilaz
Nerea letamendia*

*Joseba Ormazabal
Nuria Carbonell*

DIRU KONTUEN ETA OGASUNA

*Jokin Azkue Patxi Amantegi
Iñigo Alonso Nuria Carbonell*

GIZA BALIABIDEAK:

*Nerea Letamendia
Joseba Ormazabal*

*Jokin Azkue
Maite Ruiz de Eguilaz*

PARTAIDETZA:

*Patxi Amantegi
Begoña Tolosa*

*Nuria Carbonell
Jokin Azkue*

KIROLAK:

*Maite Ruiz de Eguilaz
Nuria carbonell
Patxi Amantegi*

*Begoña Tolosa
Nerea Letamendia
Joseba Ormazabal*

KULTURA, FESTAK ETA GAZTEDIA:

*Nerea Letamendia
Begoña Tolosa*

*Iñigo Alonso
Jokin Azkue*

Plenoa jakinaren gainean geratu da.

7. 2027/2017 (2017/15 kreditu gaikuntza) dekretuaren jakinarazpena.

7. Dar cuenta del decreto 2027/2017 (crédito adicional 2017/15).

Begoña Tolosa Mendia (Ogasun bazardeburua): "Kasu honetan 15. kreditu aldaketa da, gehikuntza modalitatekoa, jokoan jartzen dira 122.639,37 euro. Hauetati 3.300 € Gipuzkoako Foru Aldunditik datozkigu. Dirulaguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldunditik Lurralde Historikoko eta Toki entitateek beste eskualde edo herrialde batzuetako herriekin trukatzeko senidetzeak gauzatzeko dira, gure kasuan Tolosako herria eta Charleville-Meziereseko artekoa erabiliko dira. Bestea enplegua sustazeko 106.839,37 €koa da. Diru lerro honekin 21 lanpostu sustatu nahi dira enpresa mailan eta bihar bertan, adibidez, Lehiberri zentroan ferian emango da. Kasu honetan 4. feria da egiten dena. Azkeneko diru sarrera 12.500.000 €koa da. Hau ere. Lanbidetik dator, enplegua sustatzeko, beste diru lerro bat da eta kasu honetan administrari bat kontratatuko da Tolosako Udalean enplegu planean dituen beharrei erantzuteko. Aipatzen den bezala 122.639, 37 €."

OGASUN BATZORDE INFORMATIBOAREN 2017KO AZAROAREN 22KO IRIZPENA

Kontuhartzaileak, 2017ko aurrekontuari dagozkion 15. kreditu aldaketarako espedientearen kontu eman du.

Hamabostgarren espedientea kreditu gaikuntza modalitatean egin da, eta guztira 122.639,37 eurokoa izan da

2017ko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 1100.131.01.241.00 2017	LABORAL EZ FINKOEN ORD. ENPLEGU SUSTAPENA	12.500,00
1 1100.471.01.241.00 2017	DIRULAGUNTZAK. ENPLEGUAREN SUSTAPENA.	106.839,37
1 0100.226.99.912.00 2017	BESTE ZENBAIT GASTU. GOBERNU ORGANOAK	3.300,00
GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		122.639,37

2017ko aurrekontuko kreditu gaikuntzaren finantzaketa

Kod.	Sarrereren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 410.02 2017	EUSKO JAURLARITZAREN ENPR.TRANSF.ARRUNTAK	119.339,37
a	2 420.99 2017	DIPUTAZIOAREN BESTE TRANS. ARRUNTAK	3.300,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			122.639,37

Batzordekideak jakinaren gainean geratu dira.

Tolosan, 2017ko azaroaren 22a

Beraz, Udalbatza Plenoa jakinaren gainean geratu da.

8.- Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna.

8. Declaración Institucional del 25 de Noviembre, Día Internacional contra La Violencia hacia las mujeres.

Berdintasuna bazordeburuak adierazpena irakurri du. Honela dio:

**“AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Azaroaren 25a “Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna” dela eta, Tolosako Udalak indarkeria sexistaren adierazpen oro, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun estrukturalen oinarritutako botere-harremanetan erroak dituen fenomeno konplexua, irmo gaitzetsi eta bere konpromisoa adierazten du indarkeria matxistarik gabeko gizarte baten eraikuntzan lanean jarraitzeko. Era berean, berriz adierazten dugu geure eginbeharra dela emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzeko behar diren baliabide guztiak hartzea, premiazkoa baita jarduketak planteatzea esku-hartzearen plano guztietan: Prebentzioa, Detekzioa, Sentsibilizazioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa ere bai.

Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko erakunde gisa dugun konpromisoaren barruan, gure eginbeharra da erreparazio-eskubidea sartzea emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzunean. Horretarako, beharrezkoa da indarkeriaren inpaktu eta adierazpide guztiak ikusarazten lagunduko duten baliabide eta bitartekoak edukitzea, eta horrela laguntzea indarkeriari zilegitasuna kentzen gizartean. Beharrezkoa da ahotsa eta protagonismoa ematea, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarteei, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera

Tolosako Udalbatzak berretsi egiten du emakumeei indarkeria sexistarik gabe bizitzeko duten eskubidea bermatzeko hartutako erabakia, eta konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Agenda politikoan sartzea indarkeriak eragindako emakume biktimekiko erreparazio-eskubidearen aitortza eta horri buruzko hausnarketa, guztiz osatu daitezten eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal izan dezaten.

2.- Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Protokoloa eta Mahaia lantzen eta indartzen jarraitzea, erakundeen arteko lankidetzeta hobetzeko, eta indarkeria hori nozitzen duten emakumeei eta beren familiei babesik handiena eskaintzeko.

3.- Lanean jarraitzea gure udalerrian martxan jartzeko Elkargune zerbitzu bat, leku ezin

hobe eta neutral bat, segurtasun berme guztiak eta diziplina anitzeko talde baten laguntza dituena, helburua izanik adingabeei bermatzea beren familiako kideekiko elkarretaratzea, kide horiek krisi-egoeran edo laguntza sozioedukatioaren beharrean daudelarik.

4.- Aurrera egitea balio-aldaketa batean, indarkeria matxista har dadin gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren adierazgarririk handientzat, eta horretarako Udalaren berdintasun-politikak indartzea, eta bermatzea Berdintasunerako III Planean jasotako neurrien garapen, segimendu eta ebaluazioan behar diren giza- eta diru-baliabideak, elkarrekin lan eginez emakumeen eta feministen kolektiboekin, bai eta gizarte zibila zein herritarrekin ere.

5.- Begirada eta ezagupena zabaltzea indarkeriaren eta beraren kontzeptualizazio eta agerraldi desberdinen gainean, emakumeen aurkako indarkeriaren era desberdinak ikustarazteko (psikikoa, fisikoa, sexuala, mikroindarkeriak, emakumeen genitalen mutilazioa, emakumeen salerosketa sexu-esplotaziorako, eta abar.). Orobat gunee fisiko eta sinbolikoetan genero-eskema tradizionalarekin hausten duten gorputzen aurkako indarkeria mota guztien gainean (lesbiana, gay, intersex, transexual, transgenero, eta abarrak).

6.- Azpimarratzea berdintasunak balio duela indarkeria deuseztatzeko, eta sortzea gizon gazte eta helduei zuzendutako gogoetarako esparruak eredu tradizional maskulinoa zalantzan jartzeko eta jarrera eta portaera berdintasunezkoagoak garatzeko, eta sustatzea gizonak indarkeriaren deuseztapenean jarrera eraginkorrago eta konprometituagoaz inplikatzera bultzatzen dituzten balio berriak.

7.- Ikastetxeekin batera indartzen jarraitzea, batetik, Hezkidetza Proiektua eta Mahaia, eta, bestetik, Beldur Barik eta Hi Haiz, Hi! Programak, zeinetan, agresio-mota guztiak prebenitzeko helburuaz, hauek sustatzen baitira: berdintasunean oinarritutako sexualitatea, nesken jabekuntza eta mutilen papera berdintasunezko harremanen alde.

8.- Azkenik, herritarrak gonbidatzea urteko egun guztietan berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak hartzea.”

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa izanda :

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegui Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Maria Lasa Arruabarrena, Pedro Manuel Etxabe Zabala, Cristian Fernandez Susin

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **onartu du** Azaroaren 25a, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela eta, Udal adierazpena.

Partehartzeak:

- ... Mozioa irakurri ondoren Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga zinegotziak honako hau esan du: *“Berriz, ezkerak eman bai bere lanarekin eta bai jarrerekin antolatutako ekintzetan parte hartu duten guztiei.”*
- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Adierazpen honekin bat egiten dugu. Lakra honekin bukatzeko denon arteko lana eta esfortzua ezinbestekoak dira. Lana konstantea eskatzen du gai honek, gure gazteen hezkuntzatik hasita, gizartearen kontzientziario osoa lortuz. Ez da erraza, baino dauzkagun planak eta protokoloak jarraituz eta gero eta gehiago indartuz bide egokian izango gara.”*
- ... Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): *“Lehenik eta behin, Maite, esan duzu uztera zoazela burutza baina pentsatzen dut edukiko dugula aukera hitz egiten jarraitzeko. Zorte on beste eginzuetan. Mozioari dagokionean, guk ere mozio honen alde egingo dugu. Idatzi honetan agertzen den bezala indarkeria pairatu duten emakumeei ahotsa eta protagonismoa eman behar zaiela esaten da eta gu ere erabat ados gaude. Lehenik ere nahiko ixilik egon direlako edo ixilarazi zaielako eta oraintze ikusten ari garen bezala ahotsa altxatu edo bere egia esan dutenean kostata mantendu behar dute. EHBildutik esaten dugu sinesten dizugu, jarrera horretan mantentze gara. Hemen aipatzen diren neurri guztiekin aurrera, gehiago behar baldin badira, ere bai. Guk, adibidez, gure proposamena egin genuen, betikoa da: dagoeneko lanea. ari diren Emakumearen Etxearen aipamen bat sartzea. Behin eta berriro tragedi hau, lakra hau, ez dakit nola definitu, zerbait estrukturala delako eta espazio horretan, Emakumearen etxearen espazio horretan ahalduntzea leku garrantzitsu bat ikusten dugulako. Badakigu planak badaudela, baina iruditzen zitzaigun garrantziskoa, horretan gauden heinean, hori isladatzea. Ez da izan, baina bai aipatzen dugu gure konpromisoa, badakigu lan talde bat ere bihar bertan bilduko dela, beraz, jarraitu egin behar dugu emakumeek ahalduntze espazioak izan ditzaten. Horrelako egunetan datu asko ematen dira eta esan behar dira, nola ez. Gainera, askotan ere galdu egiten da eta horregatik nion estrukturala den zerbaitetaz ari gara. Emakundek aurkeztu duen txostenean ikusten da, bai erasotzaile eta biktimen %50a baino gehiago, gutxi gora behera, 40 urtetik behera dauka. Beraz, niri horrek larritzen didan zerbait adierazten dit. Hainbat gauza aipatzen dira, eta benetan urtero esaten dugu baina benetan oso serio pentsatu beharreko zerbait da. Ez delako adinean aurrera goazen, adinean diren gaztegoak diren heinean gutxitzen den zerbait. Hori datu orokor bezala. Eta bestalde, agian nire ikuspegi zabalagoa eduki behar da agian baina 2017ko 1. seihilabetean iazko 1. seihilabeteko alderatuta ia %6ko igoera dago. Datuak isolatuta agian ez du zentzu handirik edukitzen baina tendentziak aipatzen dira. Nik esaten dut beti hainbat gaietan eta honetan ere, guardia eta erne beti egon behar dela bestela pixkat jeisten bada egitura patriarkalak berehala atzera botatzen ditu asko kostata lortu izan diren lorpen txikiak handiak egin daitezkeenak. Beste zerbait aipatzearren, mozioan aipatzen da detekzioa eta indikadoreak begiratzeko ikasi beharko genuke, heriotzak daudelako eta psikologiko indarkeriak ere izugarritzko garrantzia duelako eta iruditzen zait hor ere lan handia egin behar dela. Batez ere, komentario sexista ea. batzutan agian sensibilizatuta zaudenean ez dituzu konpartitzen whatsappean, baina beste batzuk bai. Uste dut batzutan oso jarrera gogorra edo serioa mantendu daitekeela, edo iruditzen dela, bain serio jartzen gara, bestela berriro elikatzen ditugu betiko egiturak. Azken batean, lana handia dago oraindik ere egiteko, parte hartu izando zen hainbat kontzentrazioetan, jarritu egin behar da guzti hau salatzen, jarraitu behar da ez esaten indarkeriari eta baita indakerri hori elikatzen duen ixiltasunak ekiditzen. “*
- ... Alkatea: *“Ahaztu egin zait esatea baina Maitek Berdintasun saileko buru izateari utzi egiten dio baina segitzen du udal ordezkari izaten. Ez da agur bat, beste hainbat batzordeetan*

parte hartuko du. Adierazpenari dagokionez, azaroaren 25ak erreferentzi zuzena egiten dio Indarkeriari eta indarkerian jarri nahi genuen indarra, horregatik pentsatu dugu agian ez dela egokia beste gai batzuk sartzea. Emakumearen inguruko gai asko daude, denak seguraski interkonektatuta daude gainera. Baina, azaroaren 25a erreferentzi zuzena egiten dio indarkeriari. Gero turnoan bakoitzak egin dezazke nahi dituen kontsiderazio guztiak. Eta nik ere badaukat nirea. Nik uste dut beti berdin hasten naizela baina inportantea dela uste azpimarratzea. Munduan, behin baino gehiagoetan aipatu izan dugu pleno honetan, urratuena den gizaeskubideaz ari garela, sexu bereizkerian oinarritu eta emakumea helburu duen edozein indarkeri ekintzaz. Edozein maila sozialean gertatu liteke, emakume gazte edo heldu aizan, pobrea edo aberatsa, lurralde garatu edo garatu gabekoetan, hori komilla artean jartzen dut. Guzti horrek erakusten du egiturazkoa den gaitza dela gure gizartean dagoena. Eta arazoa ikustarazteko eta gainditzeko ezinbestekoa da egoerari aurre egiteko politikak garatzea, hori guri dagokigu. Gizon emakumeen eskubideen berdintasuna azalean onartuta duen gizarte batean bizi gara, indarkeria printzipio bezala arbitratzen duena baina gertatzen dena ez kasualki, ez egoera berezietan bakarrik. Gertatzen da maizegi eta gertatzen denean epeltasunekin gaitzetsi behar dugu gure herriko komunitadea osatzen dugun gizon emakume guztiak. Eta horrelako gertaera penagarri baten ondoren indarkeria jasandako emakumea egin behar da babestu, ez da epaitu behar. Honen harira Emakundek indarkeria jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea legean jasota egon dadin lanean ari da eta hori oso inportantea da. Emakumea gizaki osoa delako eta lotsagabe izan, apala, ezkondua, ezkongabea, despitatua, edo motela izan erabakitzeko eskubidea duen gizakia da, inorren morrontzarik gabe bizitzeko eskubidea duena. Horregatik bat egin nahi nuke eta aipatu nahi nuke azken egun hauetan sare sozialean eta komunikabideetan atera diren hainbat lelo: "ez da bat gehiago ere" eta "nik ere sinisten dizut". Eta horregatik bat egingo dugu adierazpenarekin."

9. Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpena.

9. Declaración institucional con motivo del día internacional del Euskera.

EHBilduk aurkeztutako adierazpena erretiratu egin da eta Idazkaria adostutako adierazpena irakurri du. Honela dio:

"2017KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA

Euskara auzolana

Euskarak lankide nahi eta behar gaitu, urtean 365 egunez

"Euskara urtean egun batez dugu ospakizunerako gai, eta 365 egunez langai. Elkarlanerako gai. Adostasunerako gai. Eta ospakizun eguna baliatu nahi dugu, hain zuzen, ilusioaren hauspoa haize berriz betetzeko. Indar berriez sendotzeko denon eginahala. Hori behar baitu euskarak, hori behar baitugu euskara guztion ezpainetan, kaleetan, etxeetan, ziberespazioan, lantokietan, pantailetan, paperetan nahidugunok: ilusioa. Eta elkarlana. Auzolana.

Ilusioa eta elkarlana, inork garai likidotzat definitu dituen gure gaurko hauek euskaltzaletasunez borborka jartzeko.

Ilusioa eta elkarlana, euskararen lurralde eta esparru juridiko guztietan ahalik eta erarik bateratuenean gure hizkuntzarentzat etorkizun bizia irabazteko. Elkarrenganako adeitasunez. Elkartasunez.

Ugari izan dira eta dira han-hemengo herritarrek euskara eskuratzeko eta lantzeko egindako ahaleginak. Hor dugu euskarak elikagai ezinbestekoa duen euskaldun berri andana itzela. Hor ditugu semealabak euskaraz ikas dezaten nahi izan duten guraso erdaldunak. Hor ditugu dakiten euskara ezpainetan dantzatzen ahalegintzen direnak...

Zenbat halako azken hamarkadotan: zenbat ahalegin pertsonal zein kolektibo, publiko zein herri ekimenekoak. Horiei guztiei zor diegu euskarak bizi duen errealitatea.

Orain, eta hemendik aurrerako urteetan, euskararen erabilera etengabe eta bizi-bizi areagotzea dugu langintza nagusi, ezagutzaren handitzearekin batera euskararen aldeko hizkuntza ohituren aldaketa sakona gauzatu dadin. Mingainak dantzan jartzeko premia dugu, eta, bistan denez, mundu aldakor honetan, kantu eta kontu berriak behar ditugu horretarako.

BIDE BERRIAK, BIDE GUZTIAK

Hala nahi zuen jokatu Lizardi handiak literaturgintzan. Hala behar du euskarak. Halaxe behar du euskalgintzak ere.

Emankor gertatu dira, bistan denez, ibilitako bide asko. Eta elkarlana da emankortasun hori auzolanean areagotzeko giltzarria.

Une aproposa da administrazioek eta herri ekimenak auzolanean bide berriak zabaldu, eta gehiengo soziala euskararen alde egotetik euskararen alde egitera eramateko. Euskara erabiltzera eramateko.

Une aproposa da euskararen lurralde eta eremu guztietako herri aginteen arteko lankidetzara ere berrikuntzaren bidetik sendotzeko. Erabileraren mesedetan. Eta euskarak elkarlan horien guztien premia du. Ezinbestez.

Ideien konfrontazioari uko egin gabe, irtenbideak adostuz, bakoitzaren eginkizun eta erantzukizunekiko errespetuz, elkarrenganako leialtasunez, eta denok norabide berean bultzatuz.

Bakarka ezinezkoa da. Auzolanean, guztiz ilusionagarria.

365 EGUN

Musikari bakar batek ezin du orkestra oso baten doinua aldatu, zuzendariaren eta gainontzeko musikarien laguntza gabe. Euskal hiztun bakar batek nekez aldatuko ditu hizkuntza ohiturak, gizartearen babesik izan ezean.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko bide luzean, euskararen aldeko gehiengo soziala aktibatu behar: euskararen lurralde guztietako administrazioak zein herri ekimena. Lurralde eta eremu guztietako erakundeak. Gizarte ekimeneko euskalgintzako taldeak zein bestelako

esparruetakoak. Euskaldun osoak, euskaldun hartzaileak eta erdaldunak.

Malgutasunez. Herri bakoitzaren errealitatera egokituz. Tokiko eragileekin urratsak adostuz. Parte hartzaile guztiak ahaldunduz.

Euskaltzaletasunaren sua indartuz hala Angelun nola Andoainen, Barkoxen zein Barakaldon, Eltziegion eta Erronkarin.

Auzolana da bide bakarra. Hizkuntza ohituren aldaketa kolektiboa izanen da ala ez da izanen.

Euskararen Eguneko gure konpromisoa, datozen 365 egunotan izan dadin lan egitea. Auzolanean lankide zintzo.

Euskara auzolana baita.”

Udalbatzako bozketa honakoa izanda:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegui Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Maria Lasa Arruabarrena, Pedro Manuel Etxabe Zabala, Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **onartu du** 2017ko Euskararen Nazioarteko egunerako adierazpena, Euskara auzolana, Euskarak lankide nahi eta behar gaitu, urtean 365 egunez deiturikoa.

Partehartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez(EHBildu): *“EHBilduk babestuko du mozioa nahiz eta, egia aitortu behar dugu, ez digu asebetetzen. Izan ere, Tolosak euskeraren egunaren begira aldarri sendogoa, irmogoa behar du. Eta mozio hau oso orokorra denez eta bertan bildu nahi izan direnez euskarekiko epelegiak diren erakunde batzuk eta agente batzuk ere, ahultxo ez ote den gelditu edukiz. Babesten dugu Tolosa UEMAKo kide delako eta UEMAK babesten duelako. Baina izango genituzke arrazoi asko ez babesteko. Babesten dugu hizkera interesgarria delak, auzolana, elkarlana, eta horrelakoak. Nolabait aspalditik euskalgintzak aldarrikatu duen erakunde publikoen eta euskalgintzaren arteko elkarlana aldarrikatzen duelako. Eta adibide konkretu eta oso inportantea eta oso adierazgarri bat ematen duelako: euskerak 365 egun. Baina iruditzen zaigu Tolosak gehiago behar zuela. Esaten da testuan, eta ondo esanik, euskal hiztun bakar batek nekez aldatuko ditu hizkuntza ohiturak, gizartearen babesik izan ezean. Baina hiztun horrek eta gizarte horrek ez ditu ohiturak aldatuko bere indar soilez. Askotan ematen du administrazioak herritar horren indar soilean jartzen duela hizkuntzaren normalizazioaren zama. Herritar horiek behar dituzte babesak, behar dute ekosistema bat, behar dute giro bat non bere jarduera erabali ez dutelako*

non euskaraz egin dezaketen. Iruditzen zaigu askotan administrazioetik ez direla ez mezu egokiak eta mezuak egokiak izan behar dute, inplizituak eta esplizituak. Izan ere, askotan esaten da euskararen alde gaude, euskera erabili behar dugu baina gero gizarteari ematen zaizkion mezu esplizitoak, euskal administrazioak ezinbestekoa ez denean euskera bertan lan egiteko beste bat da, o lanbideko ikastaroa zoazeena eta euskeraz ez dagoen ikastaroa esplizitua mezua beste bat izaten da. Lidergoak behar ditu euskarak, euskalgungoak eta lidergoak kolore guztietakoak. Baina nekez ulertzen dira eta lidergoa dago lidergo horietako bat, gutako bat lanean, eskualde euskaldun batean eta diskurtso elebidunak egiten dituenen, gauza bera eskeraz eta gauza bera erderaz, %50 eta %50a. Lidergorik ez dago, Quebez zoazenean, euskal itzultzaileak eramaten ez duzunean eta han mrtziano bat bezala agertzen zeneran, han eta hemen. Ezin dugu ulertu eta ezin zaio euskal herritar bati euskeraz aritzea bere eskubideak kontsumitzea bezala babestuta ez daudenean. Eta ez daude. Beraz, ondo da herritarrei eskatzea, ondo da herritarrei exigitzea baina ekosistema jarri behar zaio legala eta bestelakoa. Hala ere, babestuko dugu mozioa, adostasunak inportanteak direlako, baina behar bada hasi behar dugu pentsatzen epelak atzean gelditu beharko luketeela ez badira berotzen. Urte gehiegi daramagu epelen zain, eta askotan, orain dela 30 urteko eskemekin funtzionatzen dela, ikuspegirekin. Funtzionatzen dela euskalerriko behintzat gu bizi garen komunitate autonomo honetako egoera soziolinguistikoa zeharo aldatu lanean. Bukatzeko bi datu gogoraztea, inportante iruditzen zaizkigulako eta akaso euskararen egunean ere aipatu beharko lirakeelako aurten. Datorren urtean, gure akademiak, Euskaltzaindiak 100 urte beteko ditu. Hau da, euskeraren modernizazio eta normalizazioa bultzatu duen erakunde erreferentea. Eta bestetik, 50 urte beteko dira Arantzazun euskera batuaren lehen oinarriak jarri zirela. Gaur ez ginake hemen euskeraz arituko, Begoñak eta Ainhoak ez lukete bere lana egin orain dela 50 urte arantzazun euskeraren batuaren erein izan ez balitz. Gure ustez, horrek gaur merezi zuen aipamena eta hori bai garu aldarrikatu beharko genukeela, euskeraren batasuna egiten duela euskara tresna egoki 21. mendean munduan ibiltzeko.”

... Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV): *Eskertzekoa da EHBilduk mozio hau babestea, bota dituen arrazoiak botata, ez da lotura handirik ez duelako baina eskertzekoa edozein kasutan babes hori. Aurreko urteekin alderatuta aurtengo mozioak eta badakigu EHBilduk ez dela aurten bakarrik beste urteetan eskatu dituela konpromiso esplizituak eskatu dituela. Baina bere adostasuna adieraziz, zer batzen gaitun adierazi da. Aurtengo testu honetan bizpahiur ideei nagusi daude. Bata da elkarlana, elkarlana gizarte eragile eta administrazio publikoen arteko elkarlana. Ez bakarrik gizarte eragileak esaten denean, euskeraren alde daudenak, baizik eta gizarte eragileak aipatzen ari garena, aipatzen ari gara kirol elkarte, aisialdi elkarte. Era guztietako kolektiboak, enpresa mundua, administrazioa, asko dago egiteko lñakik esan duen bezala, aitortu behar da. Eta baita ere, guzti horretan zer ikusia daukan euskalzaleen elkarteak, topaguneak. Kasu honetan horren kide den Galtzaundi. Tolosaldean, bereiziki Tolosan. Parte hartze horretan parte hartuko du administrazioak, talde eragileak era zabalean ulertuta eta baita ere Galtzaundik. Bigarrena da proiektu ez da bakarrik Autonomi Erkidegokoaa baizik eta euskararen lurralde guztiena eta horretan inplikaturik daude, babesa adierazi dute Nafarroko eta Iparraldeko instituzioak eta baita Iparraldekoek. Hori aipatzekoa da. Eta hirugarrena aipatu den kontua da eta da hau ez dela ahalegin bat, pertsona bakar batek egin dezakeena, baizik eta honetan hitzkuntza ohituren aldaketa oso oso zaila da eta bertan inplikaturik daudela kolektiboa ezberdinek eta kolektibo ezberdinek hartu behar dutela erabakia eta ez da pertsona bakoitzek erabakakia bakarrik. Horretan adostasuna zabala da eta ahalegin egingo ditugu hurrengo urtean bereziki euskeraren erabilera aktibatzeke. Horretarako programa berezi bat jarriko da martxan. Hurrengo urte bukaera hamar egun izango dira euskera erabiltzeko eta hortik aparte ekintza ezberdinak egingo dira udaletan euskeraren erabilera areagotzeko eta horretan partehartze zuzena izango dute esan bezala gizarte eragileak.”*

... Alkatea: *Hitza hartuko dut Jokinek aipatutakoari osatzeko gurera etorritz. Gaur arratsaldeko 6etan Kultur etxeko areto nagusian egin dugu prentsurrekoa bat Eskualdeko 28ko ordezkariak igandean, abenduaren 3an, euskeraren eguna dela eta, Tolosaldean euskerak 365 egun eta bihar Irura ikur, idatziko dugulako herri guztien artean. Herri bakoitzak hizki bat jarriko du. Tolosak T-a jarriko dugu, Tolosaldeko lehenengo T hori eta denon artean osatuko dugu esaldi hori. Gaineratu da prentsurrekoan batasunak indarra ematen duela, helburuak merezi duela. Egia da, erabilera bultzatzeko pertsona bakarrak ezin duela hainbeste egin baiizik eta bakoitzena beharrezkoa dela gero multzoa egiteko. Aipat aurtengoan, Jokinek aipatu dituen horietan, gurera etorritz, gure kanpaina izango dela hori: "Tolosaldean euskarak 365 egun hori marraztea Eskualdea osatzen dugun 28 herrieekin eta Galtzaundiren laguntzarekin."*

10. Galderak eta eskaerak.

10. Ruegos y preguntas.

Atal honetako partehartzeak hauek izan dira:

... Lore Agirre Zipitria: *"Irailaren amaiaera joan nahi nuke, lurramendiko udal langile guztia prentsa agerraldi bat egin zutelako. Orduan, lan mahai osatzeko eskatzen zuten bai alde batetik Kabiako integrazio prozesuko pausoak adosteko eta baita momentu hartan ematen ari ziren lanpostu aldaketa horiek gelditu eta guztien artean adosteko. Iraileko Osoko bilkuran alkateak aldarrikatzeko eskubide hori zilegitzat eman zuen, zer gutxiko noski, Baino guk dakigula hor geratu zen. Printzipioz, egia da, gaurkoan gure kezka azaltzekoak ginen izan ere, guk dakigunez behintzat bi hilabeteetan zeorrik, alkatea lurramendiko lehendakari dena ere, ez da beraiekin bildu, oker ez bagaude. Tartean gainera urriko plenorako mozio bat aurkeztu zuten, Gobernuak arrazoi ezberdinengatik ez langileekin, ez gurekin, inorekin hitz egin gabe ez sartzea erabaki du azkenengo bi plenoetan. Zentzu horretan gure kezka adierazi nahi genuen. Egia da, gaur goizean gaia lantzeko bilerara gonbidatua izan nahi zela eta zentzu horretan poztzen naiz. Azkenean, gaiari dagokion garrantzia emango zaiolako eta mahai horren inguruan eseriko garelako. Eskertzekoa da, ez dakit zan den plenoko intsistentzia edo, baina mahai horretan partehartzea gonbidatua izan naizelako. Espero dugu ea gai honi irtenbide egokia ematen diogun elkarrekin, bai Udaleko teknikarien jakintzekin, baita udal alderdiak izan dezakegun borondate politikoarekin. Azkenean, langileen aldarrikapen horiei irtenbidea eman eta eskubideak babesteko bidea egiten dugun.*

... Alkatea: *"Egia da lurramendiko langileen ordezkariak idatzi bat aurkeztu zuela osoko bilkuran aurkeztu asmoz, aurreko osoko bilkurarako. Usten dut gai zerrenda osatuta zegoela, hala ere hori ez zen eragozpenik izan. Momentu horretan langile ordezkariekin hitz egin nuen, orduan idazkari berria ere etorri berria zen edo. Baina behar nuen denboran idatzian aipatzen ziren hainbat gaia Idazkariarekin kontrastatzeko. Hitz egin nuen beraiekin, galdetu nien eragozpenik bazeukaten azaroko plenoan tratatzeko idatzia eta esan zidaten ez zeukatela eragozpenik ez zeukatela horrelako presarik. Egin dugu barne bilera, kontrastatu ditut beraien eskaerak eta proposatu nien lehengo astean, hitz egin nuen telefonoz beraiekin, proposatu nien osoko bilkurara ekartzea baino bilera bat egitea puntuz puntu aztertzeko gaiak. Edo biak. Nik ez neukan eragozpenik gaur idatzia hona ekartzea baijan egokiagoa iruditzen zaidan mahai batean bildu eta arrazoiak ematea. Eta neronek proposatu nien lan mahai horretan oposizioa ere egotea. Erantzun zuten lan mahai bilera hori egitea nahiago zutela. Beti utzi dut mozioa plenoan sartzeko bere esku. Lan mahaiarena lan mahai eskatu zenean, eskatu zen Kabiaren inguruko informazioa*

kontrastatzeko. Orduetik hona oraindik, Kabiaren ingurua informazio berririk ez dago. Horregatik ez da deitu, lehenago aipatu nuen eta ohitura daukat hitza betetzeko Kabiaren informazioa iristen zenean elkartuko ginela. Ez dugu lan mahai hori ez diogu forma ez delako informazio berririk iritsi. Orain, langileen aurkeztu den idatzi hori aitzakia izan daiteke mahai hori edo beste bat. Elkartzen genean erabakiko dugu zer forma eman.“

... Ibai Iriarte San Vicente: *Olatz hitza daukazunez hitza betetzeko...Harritu dit Begoña (Tolosak) Charlevilleko senidetzean inguruko aipamena egin izana. Harritu dit, bada denbora bat, oso modu informalean, agian Charlevilleko bueltan zela, hau da, irailean. Beno Charleville Frantziako herri bat, txotxongiloak festibala antolatzen dute eta beraiekin batera Tolosa AVIAMA izeneko elkarte batean dago. Elkarte honek lana egiten du txotxongiloen sustapena indartzeko. Harritu dit kreditu aldaketan aipamena entzun izana, izan ere, honen inguruan mahai gainean jarri zenutelako, agian aukera zegoela, halako ahalera batzuk edo hipotesi batzuen menpe. Guk esan genuen guk ez geneukala inongo eragozpenik inongo senidetzearen inguruan eta inportantea zela, zuek ere horrela esan zenuten, proiektu bat izatea honen atzean, helburu batzuk izatea ez zedin erori senidetze hutsa batean edo halako sinbolo batean non bi argazki ateratzen diren, urtean bidai bat egiten den eta herriari eta herritarrei inongo eragin egiten ez diotena. Orain dela hiru hilabate modu informalean ideia mahai gainean jarri eta orain diru bat jasotzera horren gauzapenerako. Orduan, hitzari zor, ulertzen dut plangintza bat egongo dela, guri aurkeztu ez zaiguna. Ulertzen dut zait beste zerbait egongo dela, bestela Aldunditik ez da jasotzen diru hori. Eskertuko dut, beste batzutan ere aipatu dudana hemen gaudela, deitu gaizatzue behintzat etorkizunean ere, udala dagoen esku dagoela, senidetze honen jarraitu behar badu, denok hartu beharko dugulako senidetzea. Eskertuko genuke dagoen informazio trukatzeko borondatea eskaini bazenukete. Hitzari zor.“*

... Alkatea: *“Zerbait aipatu dugu osoko bilkura hasi aurretik. Dakizuenez, Charlevillera honago Festibala 2 urtez behin ospatzen dela. Azkenengoan egin genuen hango bilera alkatearekin eta planteatu genuen senidetzeko aukera bat. Hori komentatu genuen zuk esan bezala. Senidetze horren oinarria printzipio batean badirudi txotxongiloa izango dela baina hortik aurrera baita ere, anaikidetzaren formalizatzeko beste hainbat gai begiratu beharko genituzke eta eduki bat emat. Orduetik hona lehenengo kontaktua Charlevillerekin zango da asteburu honetan, eta hori komentu dizueguna lehenago. Asteburu honetan Charlevilleko alkatea dator eta zinegotzi bat eta izango dugu lehenengo bilera, oraindik ez da formalizatu. Hasiko gara lan bilerak egiten anaikidetzaren hori formalizatzeko interesatzen bazaigu, edukiz betetzeko gaitasuna baldin badaukagu. Bestalde, Foru Aldundiko dirulaguntza etorri da anaikidetzaren sustatzeko nahiz eta anaikidetzaren formalizatu gabe egon, sustatzeko ere laguntzen duelako. Charleville bidaia egin genuenean nola formalizatu genuen hango udaletxean, alkatearekin bilera anaikidetzaren planteatzeko, horrek balio izan du diru hori udalak jasotzeko. Beraz, ongi etorria izan dadila. Ez dago besterik.“*

Jarraian, alkateak hitza eman die bertaratu diren herritarrei. Partehartzeak DVDn jasota daude espedienteetan.

Besterik gabe, gaueko hamarretan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 22:00 horas, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, La Secretaria, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA

ERANSKINA I

2017KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA																			
MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO 2017																			
CODIGO	AREA	DENOMINACION	T.P.	DOT	DED	PRV.	GRUPO	ESC.	SUB.	CLAS	F.E.	R.	E.	P.	FEC.PREC.	C.D.	C.E	Penosidad %	Dedicacion %
	PERSONAL FUNCIONARIO																		
200010	ADMINISTRACION GENERAL	SECRETARIO/A GENERAL	S	1	4	C	A1	FHCE	S	2	1			4	31.01.1994	30	1202,5	0	20
100010	ADMINISTRACION FINANCIERA	INTERVENTOR/A	S	1	4	C	A1	FHCE	I	2	1			4	31.01.1994	30	1202,5	0	20
1200020	ADMINISTRACION GENERAL	INFORMATICO	N	1	1	C	A1	AE			24			3	26.12.2011	24	752,5	0	0
300050	SOCIEDAD, IGUALDAD Y CULTURA	TECNICO DE JUVENTUD	N	1	1	C	A2	AG						3	26.12.2011	20	652,5	0	0
300055	SOCIEDAD, IGUALDAD Y CULTURA	TECNICO DE IGUALDAD	N	1	1	C	A2	AG						3	26.12.2011	20	652,5	0	0
1300015	SEGURIDAD	SUBOFICIAL	N	1	1	C	C1/C2	AE	SE	PL	13			3	26.12.2011	21	815	0	20
900012	URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS	JEFE URBANISMO OBRAS Y SERVICIOS	S	1	4	LD	A1	AG			19			4	26.12.2011	28	1165	0	20
900080	URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS	CONSERJE DE ESCUELAS	N	1	1	C	C2/E	AE						2	31.01.1994	13	540	0	0
906012	URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS	INSPECTOR DELINEANTE	N	1	1	C	C1	AE			25			3	31.01.1994	18	627,5	0	0
	FUNTZIONARIOAK																		
KODEA	AREA	IZENA	LM	DOT	DED	PRB.	TALDEA	ESK.	AZP	MOTA	FB	B	B	HE	DERR DATA	DO	BO	Nekagarri %	Dedik %
200010	ADMINISTRAZIO OROKORRA	IDAZKARI OROKORRA	B	1	4	L	A1	INGF	I	2	1			4	31.01.1994	30	1202,5	0	20
100010	FINANTZA ADMINISTRAZIOA	KONTUHARTZAILEA	B	1	4	L	A1	INGF	K	2	1			4	31.01.1994	30	1202,5	0	20
1200020	ADMINISTRAZIO OROKORRA	INFORMATIKARIA	E	1	1	L	A1	AB			24			3	26.12.2011	24	752,5	0	0
300050	GIZARTEA, BERDINTASUNA ETA KULTURA	GAZTEDIKO TEKNIKARIA	E	1	1	L	A2	AB						3	26.12.2011	20	652,5	0	0
300055	GIZARTEA, BERDINTASUNA ETA KULTURA	BERDINTASUN TEKNIKARIA	E	1	1	L	A2	AO						3	26.12.2011	20	652,5	0	0
1300015	SEGURIDAD	OFIZIALORDEA	E	1	1	L	C1/C2	AB	ZB	U	13			3	26.12.2011	21	815	0	20
900012	HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK	HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUETAKO BURUA	B	1	4	IL	A1	AO			19			4	26.12.2011	28	1165	0	20
900080	HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK	ESKOLETAKO ATEZAINA	E	1	1	L	C2/E	AB						2	31.01.1994	13	540	0	0
906012	HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK	IKUSKATZAILE DELINEATZAILEA	E	1	1	L	C1	AB			25			3	31.01.1994	18	627,5	0	0